



Fitxa teknikoa

Ameliak txakur bat nahi du. Tim Bowley / André Neves. Pamiela Kalandraka. 2012

Liburuaren aurkezpena

Album ilustratu honetan, umorez azaltzen zaigu, haur batek erabiltzen dituen irudimenezko amarruak berak nahi duena lortzeko. Izan ere, Ameliak txakur bat nahi du eta aitak ez du aukera aztertu ere egiten, egunkariaren orrien atzealdean ezkutaturik. Orduan Ameliak bestelako aukera harrigarri asko aurkezten dizkio aitari, bata bestearen atzetik: arranoa, zaldia, elefantea... Irudiaren eta testuaren arteko lotura trinkoaren bitartez, jostailuzko animaliak kolore eta forma zoragarrietan eraldatzen dira, Ameliaren grina eta eskaera tematia azalduz. Azkenean lortuko al du Ameliak bere txakurtzkoa?

Nola kontatu

Ilustrazioen eta testuaren arteko lotura oso handia da, errealitatea eta irudimenezko proposamenak tartekatzen dira jolas etengabe batean.

Errepikapen erritmiko batean oinarritzen da ipuin osoa, bertan, testuak eta ilustrazioak errejistro desberdinak aurkezten dituzte: errealitatea, irudimena, ironia txandakatzen dira, umorez beteriko jolas baten bidez.

Testua eta testuaren ezaugarriak dastatzeko aproposa da liburu hau: barne-mintzoa azaltzen da, elkarrizketak, tonu desberdinak tartekatzen dira, hala nola, umorea edota ironia. Aldi berean, eta antzeko jokoa partekatuz, ilustrazioek kontatzen digute ipuina, mugimenduz eta kolorez beteriko orrialdeetan.

Proposamenak zehazten

- Ba al duzu etxean inongo animaliarik?
- Zer egiten duzu animalia horiekin?
- Jostailuzko animaliarik ba al duzu?
- Jostailuzko zein animalia bihurtuko zenuke zure maskota?